

# KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan beste enpresa guztietan bezala, bi kostu ezberdin egongo dira; alde batetik, kostu finakoak, aldatzen ez diren enpresaren gastuak dira, esate baterako lokalaren alokairua; eta bestetik, kostu aldakorak, zure enpresa hilabetero edo urtero nola joaten den neurtzeko eta etekina lortuko dugun edo ez jakiten lagunduko diguten aldatzen diren kostuak, adibidez zenbat produktu saldu ditugun.

Gure enpresako kostu finakoak ez dira asko izango, baina gastuak oso handiak izango dira. Alokaturako dugun lokala nahiko handia da, hau da, era guztietako zerealak jartzeko modukoa denez, alokairua ere nahiko garestia izango da.

Kostu aldakorrei dakienez ordea, gehiago egongo dira baina argi dagoen bezala ez dira hain garestiak izango. Salduko ditugun produktuak izango lirateke; horien artean zerealak, esnea, kafea, zukuak... Gainera, hornitzailearekin adostutako akordioa dela eta, enpresak izandako sarreraren ehuneko bat beraietzako joango litzateke. Hau da, emango geniekeen diru kantitatea ez litzateke beti berdina izango enpresak izandako diru sarreraren araberakoa izango litzatekelako.